

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Eusebio Okina Bengoa

*Arrasate
Gipuzkoa (1929)*

Aurkibidea



Biografia



San Andres auzoko Etxaburu baserrian jaio zen 1929an. Ama bertakoa zuen eta aita Eskoriatzako Apotzaga auzokoa. Viterin ibili zen lehenbizi eskolan eta geroago eskola nazionalan, Martin Calvo irakaslearekin. 14 urterekin "kutxerixan" hasi zen lanean, koilareak egiten. 14 urte egin zituen bertan eta gero ULGOR kooperatiban sartu zen. Emaztea Lizarrakoa (Nafarroa) du, baina umetatik Arrasatera etorria. Ezkondu zirenetik kalean bizi izan dira eta 3 seme-alaba dituzte.

Zintak

ARR-048

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-02-17
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ARR-049

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-02-17
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Mila pezetako limosna

- **Erref:** ARR-048/002
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:06:13. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Garai bateko mezetan abadeek "zaratarik gabeko" limosna eskatzen zuten elizan emateko. "La Industrial Mondragonesa"n ("Kutxaraderixia") egin zuen lan Eusebiok 1944an hasita 14 urtean, Karrikirri gerente zela.</p>

2. Neskame edo moja

- **Erref:** ARR-048/003
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:12:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Parroko zaharrak ba omen zituen infernuari buruzko zalantzak. Lehenagoko jendea bihotz hobekoa zela dio Eusebiok, jendeak orain eskola gehiago duela baina berekiagoa dela. Umeak ere gehiago ekartzen ziren lehen; abadeek hala eskatzen zuten eta telebistatik ez zegoenez... Ume larregi ekartzen zirenez etxeetan, batzuk morroi edo fraide-mojatzara bidali behar izaten zituzten.</p>

3. Aho asko eta jateko gutxi

- **Erref:** ARR-048/004
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:12:35. **Bukatu:** 00:15:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Ume asko izan zuen familia bat ezagutzen du Eusebiok. Denentzako jatekorik ez eta anai-arrebatatik bik moja eta beste bik fraide joan behar izan zuten. Horrela ziren kontuak orain dela 70 urte. Hala ere, orduko jendea hobea zela oraingoa baino dio Eusebiok. Lehenago elkar laguntzeko ohitura gehiago zegoen orain baino.</p>

4. Arrasate edo Mondrague

- **Erref:** ARR-048/005
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:15:42. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>1929ko abenduan jaio zen Eusebio San Andres auzoko Etxaburu baserrian. Bere herriaren Arrasate izena ez du inoiz ezagutu Eusebiok, baina gogoratzen du umetan bazegoela okindegi-irindegi bat Arrasate izenarekin.

Horra eramaten zituzten gari kupoak gerraostean. Bere ama zen Etxaburukoa; aita, berriz, Apotzagako Urigarai baserritik etorri zen.</p>

5. Eskolan, 'Cara al Sol' abestu behar

- **Erref:** ARR-048/006
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:21:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan lehenengo Viteri-n hasi zen eta gero "Calvo"nean jarraitu zuen, Don Martin Calvo Sanabria militar ohia maisu zuela. Eskolan erdaraz berba egin behar izaten zuten, eta baita falangisten kantu ugari abestu ere.</p>

6. Neskak eta mutilak aparte

- **Erref:** ARR-048/007
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:21:17. **Bukatu:** 00:24:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Maisu zorrotza eta gogorra zen Calvo jauna. Ikasgela batean egoten ziren adin guztietako ikasleak, adinez bereiztutako taldeetan. Berrogei bat mutil egoten ziren gela batean eta maisu batekin. Neskak beste gela batean. Elizan ere emakumeak emakumeekin eta gizonak gizonekin egoten ziren; emakumeak behean aulkietan eta gizonezkoak koruan, normalean. Baina zinean denak nahasi ere egon zitezkeen.

7. Funtzionarioek soldata osatzeko klase partikularren beharra

- **Erref:** ARR-048/008
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:27:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

San Viator eskola zaharra errepublikan eraikitakoa omen da. Neskek eta mutilek eskolako jolasaldietan ere aparte egon behar izaten zuten. Mutilek maisua eta neskek, berriz, maistra izaten zituzten irakasle. Funtzionarioek soldata eskasa zuten eta irakasleek eskola partikularrak emanez osatzen zuten irabazia.

8. Gerraosteko miseria

- **Erref:** ARR-048/009

- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:27:41. **Bukatu:** 00:30:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Eusebioren lehen soldata eguneko 5,50 pezeta izan zen. Garai hartan 60 pezeta ordaintzen zen arrautza dozena bategatik, eta arrautza batekin egiten zen zazpi lagunentzako tortilla. Udaleko gestioak eta horrelakoak baserritarrek baserriko gauzeekin ordaintzen zituzten, dirurik ez zutelako.</p>

Transkripzioa

- Geuk be ze irabazten gauen. Nik hamalau urtekin kutxerixara fan nitzen lanien bai, "cinco cincuenta" irabazten naban egunien-egunien. "Cinco cincuenta". Ta gizona, ni mutikue nitzen, gizona, famelixako gizonak jornal bat zeuken "siete cincuenta". Aber, ta zelan bizimodua atara zeikien. Ta dozena bat arrautza bakitzu zenbat balixo auen "hace sesenta años"? E?
- Zela jakingo dot ba.
- "Sesenta pesetas". Dozena bat arrautza.
- Dozena bat arrautzak?
- Bai. Arrautza, arrautzie, arrautza batekin zazpi lagunendako in biher tortillie, ze ba? Bakoitzak biñe, ala? Ez zauen! Orduan oilluek arrautza onak bai, baiñe kanpuen dabitzen arrautzak eta holaxe. "Recurso de caserío" lehenau zan arrautza batzuk eta oillasko batzuk hazten badittuzu, ba, jaten zittuen parrokiek eta, aiuntamentuko sekretarixuek eta, horretxik. Haretxi erun bihar.
- Eruen, erregalau? Edo...
- Erregalau, ba zeoze. Zuk zeoze, por ejemplo, Donostiera in bihozu, ba, jesiñon batzuk in biher dittuzu, ba, edo semie libretagatik soldauskatik edo igual papelen batzuk eta zeuk osteria bialketan dozu aiuntamentuko sekretarixue igual ta haren hobarixe, ba, zeoze erun in biher. Donostiera ta zein fango zan ba orduen? Donostiera, joe!
- Osea ke, Donostiara fan biharrien sekretarixuak...
- Sekretarixuek itten auen ta ostien, ba, faten zan sekretarixue astien bihirutan hemengo papeleuegana faten zan de pasuen, derrigor fan bihera, aiuntamentu konture edo gure ahala, ta bittartien horreik lanok hartzen zittuen berak parte, itteko.
- Oillasko danak eta arrautza danak.
- Abadieie dana, arrautzak eta dana, zerketako. Hoixe. Ta "recurso de caseríos", esne apurtxo bat, behixeie batzen akon esne apur bat eta horretxek arrautzak eta oillaskon batzuk eta horixe izeten zien. Bati, frakak erosteko mutikon bati, bestieie alpargetak, hurrengo alkondarie edo. Zera, holaxe, holaxe bizi zan jentie lehenau.

9. Errepublikan langileria hobeto

- **Erref:** ARR-048/010
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:30:06. **Bukatu:** 00:33:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Sindikatoek indar handia omen zuten errepublika garaian. Langileek ondo irabazten zuten, baina enpresariak ez zuten langile gehiago hartzerik nahi. Lana ba omen zegoen, baina jende gazte asko lanik gabe zegoen gerra hasi zenean.

Transkripzioa

- Nik, dudaz akaso ez jatzu gustauko esatie baiñe esan biher dotsut, republika denporan lanien zabillena, oin baiño hobeto abillen, fabrikan lanien abillena. Republika denporan.
- Republika denporan.
- Bai. Baiñe zein abillen lanien? Ez zeuen hartzen iñor. Zerrajeriek eta entzunde dauket, lana, pediduek ein ezinke bai eta obreroik ez zauen hartzen.
- Hori zeatik?
- Ba hundidu gura euen naziñue, gerran bat edo zoeze urtetie gure. Ta mutillek, hamazortzi-hogei urteko mutillek eta, gerrara fan arte, gerra eguna arte, golpeik be in barik. Ez zauen lanik iñun hartzen. Horretxegatik. Baiñe lanien abillena, horreik sindikatuok eta obligau itten utsien ta pagetan utsien ondo. Baiñe bai, ondo pagetan utsien. Lanien abillena eta ez abillena, astien hiru edo lau bider tabernan billotsa ta angulak janda abillen Zerrajeran biherrien, lanien abitzenak, e? Ta bestiek, holaxe, asko. Nik [darabiltten], nire aldamenien, gure han bezino bi gauken etxien bai ta azen bi anai, bestiek gaztiauak zien, bi anai gerrara fan zien gero bixek, batek hogei urte auken eta bestiek hemeretzi, urtebeten diferentzie, etxien. Nunbaitten ezebe, baten batek nunbaitten kriaue edo zoeze lanik jiratzen baotsen, haretxek, lanik ezin topau iñun be, jornalera lanik. Ta gero gerriak urten auen ta gerrara danok hamazortzi urtekin, atzenengo, atzenengo kintia hamazortzi urtekin fan zan gerrara. Xei urtien gerran. Ta holaxe zan baiñe horreik lana Zerrajeran eukien, orduen Zerrajerie bakarrik euen ta Elma, ta kutxeixie hasi, ba, zerien baiñe. Lana asko, baiñe ez gure hartu jenteik. Pediduek retxazau gure ta holakuek entzunde nik. Ta jentie ezin kolokau iñun. Ta nik tio bat dabitteten Zerrajeran ta harek Donostien Maria Kristinan bakaziñuek pasatzen zittuen. Zerrajerue zan ta afaldu kalien egunero. Ta beste batzuk...
- Ta ze zan, jefia? Edo...
- Ez, ez. Zerrajero bat, zerrajero normal bat. Bakaziñuek be orduen hamabost egun edo ze emoten otsien republika denporan be. Baiñe sindikatuak ez, presionau itten auen ba patronuek ta haik ez zeban gure presionaik peik. Ta gero ba ez auen hartzen jenteik. "koiño, hori be bai? Ba ez juat hartuko. Pediduek retxazauko jittuet eta kitto, bapez". Ta "a hundir".
- Hori herrixa hundittia da.
- Herrittikan bi ez, hundidu, hundidu, ba, zertu, hundidutie gure, baiñe eurak jodidu itten zittuen sindikatuak eta.

10. Koilarategitik Ulgor-era

- **Erref:** ARR-048/011
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:33:12. **Bukatu:** 00:35:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerraostean lana denentzako zegoen, baina oso baldintza txarretan. Diru gutxi langileentzako eta ugazabak, ordea, aberastu. Koilarategitik Brasilera ere bidaltzen zituzten koilarak. 1944an hasi zen koilarategian, eskolatik irten zenean. 14 urte han egin eta gero Ulgor-en hasi zen lanean, bazkide gisa. 85 pezeta irabazten zuen egunean, eta larunbatean ere lan egiten zuen.

11. Etxetresnen aurrerapena

- **Erref:** ARR-048/013
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:37:46. **Bukatu:** 00:39:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Beraiek egindako hozkailua erosteko hiru hilabeteko irabazia behar zuen Eusebiok. Gas sukaldea izan da etxetresna berrietatik aurrerakoiena Eusebiorentzat.

12. Baserritar petoa

- **Erref:** ARR-048/015
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:40:45. **Bukatu:** 00:43:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Lantegian eta baserrian egin behar izaten zuen lan. Lau behi zituzten eta esnea kalera saltzen zuten. Marmitak eseki zituztenean hasi omen ziren txahal onak hazten. Senideen nahiaren aurka oraindik ere zaintzen ditu behi pare bat, bestela aspertu eta gizendu egingo zela dio eta.

13. Kalean eta baserrian

- **Erref:** ARR-048/016
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:43:34. **Bukatu:** 00:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Eusebio kalera ezkondu zen, baina baserriarekin lotura mantendu du. Bere emaztea nafarra da, umetan Arrasatera etorritakoa.

14. Txakurra lakioan ito

- **Erref:** ARR-048/021
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:53:01. **Bukatu:** 00:54:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Azerientzako jarritako lakio batean auzoko baten txakurra hil zen. Lazoarena delitu handia dela deritzo Eusebiok.

15. Inguruko erromerietarako joera

- **Erref:** ARR-048/023
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:55:10. **Bukatu:** 00:59:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

"Patrocinio de San José" egunean ziren San Andres auzoko jaiak. San Andresko ermita zaharrean meza eta erromeria izaten zen, ilundu arte. Arrasateko jende asko joaten zen bertara. Erromerietarako zaletasun handia zegoen Eusebio gaztea zenean. Bergarako erromerietara oinez joaten ziren. Aretxabaletako Otalora Zelaikora ere joaten ziren. Baita Goroetako Santixauetara eta Gatzagako Ama Birjinaren jaietara ere. Baina garizuman ez zen izaten jairik, Pazkoak arte.

16. Umetako jolasak

- **Erref:** ARR-048/024
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:59:39. **Bukatu:** 01:01:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Garizuman beste jolas batzuk egiten zituzten, pote-poteka edo txirikiletan, esaterako. Futbolerako baloiaren ordeztzerriaren puxika puztuta erabiltzen zuten. Pilotan egiteko ez zegoen pilotalekurik eta kaleko hormetan jolasten bazuten, aguazilek egurra banatzen zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com